

## **2.800 pertsona baino gehiagok eman dute izena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko enplegu publikoaren eskaintzako 101 plazetarako**

*EPEak 101 plaza eskaintzen ditu, gizarte langile, desgaitasuneko monitore eta psikologoenak*

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 27a.** Denetara 2.840 pertsonak eman dute izena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko (GOFE) funtzionario plazen enplegu eskaintza publiko berrirako. Zehazki, 2018an, 2019an eta 2020an dei egindako eskaintza publikoetako 101 plaza aterako dira oposizio-lehiaketara. Kategoriara, 1.183 pertsonak eman dute izena 42 gizarte langile plazetarako; 951 pertsonak, desgaitasuneko monitoreen 38 plazetarako, eta 706 pertsonak 21 psikologo plazetarako. Haiek guztiak gizarte zerbitzu foralen erabiltzaileei zuzeneko arreta ematen diharduten profesional kategorietakoak dira.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak argitara emango dira Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoko atarian.

Baztertutakoek edo argitaratutako datuen multzoan akatsen bat nabaritzen dutenek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte eta, hala dagokionean, egindako akatsak konpontzeko eskatu, onartutakoen zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo hamar egun baliiodunen barruan.

Epaimahai kalifikatzaileak adierazitako epean, eta probak egin aurretik, izangai bakoitzak Gizarte Ongizateko Foru Erakundera joko du bere hatz marka digitala har dakion. Izangaiek hatz marka eman dezaten dei egingo zaien unearen berri emango da. Hura ez emateak berekin ekarriko du hautaketa prozesutik kanporatzea, oinarri orokorretan adierazten den bezalaxe.

Izapide hori betetzetik salbuetsita daude lehendik GOFEn lanean aritzeagatik hatz marka digitala erregistratuta duten hautagaiak. Hatz marka izango da hautaketa prozesu osoan zehar identifikatzeko eta sartzeko baliabidea.